

ANUGA COLONIA 2025

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2025eko urriaren 4-8
- **Tokia:** Koelnmesse Colonia (Alemania)
- **Maiztasuna:** bi urtekoa
- **Norentzat:** Elikagaien industriako profesionalak (supermerkatu-kate banatzaileak, handizkariak eta txikizkariak)
- **Izena emateko epea:** 2024ko irailaren 16a
- **Azokaren webgunea:** www.anuga.com



Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **ANUGA COLONIA 2025** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZIren bitartez. Azoka, Colonian (Alemania) ospatuko da 2025eko urriaren 4tik 8ra.

AZOKAREN IZAERA

ANUGA COLONIA DATUAK

Erakusketa
eremua:

300.000 m²

Nazioarteko
erakusleak:

94%

Erakusleak
2023an:

7.900
118
herrialdekoak

Bisitariak
2023an:

140.000
200
herrialdekoak

EUSKADI BASQUE COUNTRY STAND-A

Eusko Jaurlaritzak **BANUGA COLONIA 2025** azokan parte hartu nahi duten euskal elikagaien industriako enpresentzako gune bat izango du. Azoka honetan Eusko Jaurlaritzak parte hartu nahi duen **gutxieneko enpresa bat egoteak baldintzatuko du parte hartzea.**

Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkariak gehienez ere enpresentzako gaitasuna izango du. Enpresa interesdun gehiago egonez gero, hautaketa bat egingo da, **izen-ematearen hurrenkera zorrotzaren arabera.**

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza **Euskadin** duten eta Eusko Jaurlaritzaren **Elikagaien Industrien Erregistroan** inskribatuta dauden **enpresa ekoizleak** baino ezingo dute parte hartu ekitaldi honetan.

Enpresa erakusketariak azokara joango dela baieztatzen duenean, inskripzio-inprimakia eta ordainketa-egiaztagiria bidaliz, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko azoka egiten bada eta Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartuko duela berresten bada. Azoka egiten ez bada, HAZIK dagokion zenbatekoa itzuliko du.

AZOKAREN AURRETIK

- Enpresak ordezkari bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du. **Euskadiren pabiloian egongo dela jakinarazi ondoren, ezin izango da baja eman.** Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Enpresek nahitaez agertu beharko dute ekitaldia hasiko den egunaren bezperan, adierazitako orduan, merkantziajasotzeko eta beren standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi baino lehen, nahikoa aurrerapenarekin.

AZOKAN ZEHAR

- Erakusgai egondo diren produktuak **Euskal Autonomia Erkidegokoak baino ez dira izango.** Ezin izango da beste autonomia erkidego batzuetako produkturik aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Bere standean egon azokako egun guztietan eta irekiera-ordutegi osoan.

- Enpresa azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubideak (izena emateko hurrenkera, etab...). Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo.
- Halaber, enpresa batek edo hainbatek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak, bertaratze taldekatuaren antolatzailea izanik, azokaren antolakuntzaren aldetik zehapen ekonomikoren bat jasoko balu, zehapen hori berehala jasanaraziko litzaioke arau haustea eragin duen enpresari edo enpresei.
- Azoka amaitzean, enpresak egoki jaso beharko ditu bere produktuak, eta standeko elementuak jaso zituen egoera berean bueltatu beharko ditu.

AZOKAREN ONDOREN

- Ebaluazio-inkesta egin; antolakuntzaren jarraibideen arabera bete eta entregatu beharko dute.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritzak azoka honetan parte hartzea aurreikusten du, erakusketariei honako parte-hartze eredu hau eskainiz:

- **STAND INDIBIDUALA**

GARRANTZITSUA:

Stand bikoitza edo hirukoitza esleitzeko, parte hartzen duten enpresen guztizko kopurua eta eskuragarri dagoen espazioa hartuko dira kontuan.

Standaren neurri zehatzak aurrerago zehaztuko dira, parte hartzen duten enpresen azken kopurua jakin ondoren.



PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

PARTE HARTZEKO KOSTUA

Eusko Jaurlaritzak EAEko lehen sektoreko produktuak merkaturatzen dituzten enpresa eraldatzaileen parte-hartzea bultzatuko du.

Produktuak jatorri-deitura, AGB edo kalitate-marka ziurtatu ofizial batean erregistratuta dituzten enpresek ez dute adierazpen horren taula bete beharrik izango.

Sailkapenaren arabera, enpresek dirulaguntza desberdinak jasoko dituzte partaidetza-kostuan.

ENPRESA MOTA 1

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

• **Stand partekatua:**

3.300 € + BEZ % 21 = 3.993 €

ENPRESA MOTA 2

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioerik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

• **Stand partekatua:**

5.400 € + BEZ % 21 = 6.534 €

ENPRESA MOTA 3

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egon arren Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

• **Stand partekatua:**

8.100 € + BEZ % 21 = 9.801 €

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO EPEA: 2024KO IRAILAREN 16

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainketaren frogagiria, zure enpresak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea
Maria Fernández Romarategui: mromarategui@camaradealava.com

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.

Eskabidea osorik egon dadin eta kontuan har dadin, honako hauek bete beharko da:

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira zokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

[IZENA EMATEAK](#)

KUOTAREN ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: Laboral Kutxako
ES49 3035-0179-61-1791069900
HAZiren izenean.

Laboral Kutxako BIC-a: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena +
ANUGA COLONIA 2025"

mromarategui@camaradealava.com
helbidera bidali

ZINPEKO ADIERAZPENA BIDALI

Derrigorrezkoa da enpresa eskatzaileek **Zinpeko Adierazpen** bat aurkeztea lehengaiaren jatorriari buruz, sinatuta eta zigiluarekin.

izena ematea formalizatzeko, **erakutsi behar duten produktu bakoitzaren produktu organikoaren ziurtagiriak** erantsi beharko dituzte.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

GARRANTZITSUA

Izena ematea formalki egindakotzat jotzeko, inskripzio-formularioa behar bezala beteta izan beharko dute, eta zinpeko aitortpena eta ordainagiria bidali beharko dituzte, gainerako dokumentuekin batera. Inskripzio-data, ondorio guztietarako, inskripzioa ordaindu zen eguna izango da.

Izena emateko inprimakia betetzeak EZ du esan nahi enpresak Eusko Jaurlaritzaren standean parte hartu behar duenik; izan ere, gutxieneko eta gehieneko enpresa-kopuru bat egon behar da izena emateko. Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko du inskripzioa onartu dela.

FAKTURA, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO STANDEAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN, PARTAIDETZARI UKO EGITEN DION ENPRESAK % 100 GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan bakarrik gordeko da enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eskubidea eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzekoa.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartuko:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

1 Espazioa kontratatzea

Sustapen-espazio batekin parte hartuko da, eta enpresa erakusketariak partekatutako stand batean banatuko da.

2 Stand-aren dekorazioa

Erakustokiaren dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira Euskal Herriko standeko erakustoki guztientzat, eta honako elementu hauek izango dituzte:

- **Stand INDIBIDUALA:** mahai eta aulki 1, mostradorea, konexio elektrikoa, enpresa erakusketariaren errotulua, biltegi komuna.

OHARRA: ez da harraskarik sartzen banakako stand bakoitzean. Eremu komunean instalatuko dira.

Oinarrizko altzarien, elementu elektrikoan edo stand-etako behar elektrikoan edozein aldaketa, horiek handitzea edo aldatzea badakar, zuzenean kontratatuko du erakusketari-kide bakoitzak, eta dekoratzaileak zuzenean fakturatuko duen kostu erantsia izango du. Antolatzaileek alde aurretik onartu beharko dute standean sartutako elementu gehigarri bakoitza.

3 Stand-aren mantentze-lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie erakusketakideei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean. Erakusketariaren batek gainditzen baditu, horren kostua enpresa erakusketariari jasanaraziko zaio.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

4 Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratua antolatuko du garraiolariak adierazitako puntu komunitik merkantzia standean entregatu arte.

Merkantzia bidaltzearen kostua garraiolariak fakturatuko du eta enpresa erakusketariaren kontura izango da.

Dagokionean, garraio-enpresa esleipendunaren datuak emango zaizkie.

Enpresek bertan egon beharko dute salgaia jasotzen duten bitartean, adierazten zaien orduan, bai eta azokaren inaugurazioa baino behar besteko aurrerapenaz beren standak apaintzeko ere. Adierazitako orduan beren salgaiak jasotzera joaten ez diren enpresak zigortu egingo dira.

5 Hotz-ganberak eta beste etxetresna elektriko batzuk

Hotz-kameren eta bestelako etxetresna elektrikoen alokairua erakusketariaren kontura izango da. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak zerbitzu horren kontratazioa koordinatuko du, eta hornitzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusketari.

6 Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak behar diren izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusketari guztiak azoka-antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean inskribatuta ager daitezen, eta bertan ekitaldiko erakusketari guztiak erregistratuta ager daitezen (izena emateko [formularioan](#) jasotako datuak agertuko dira).